

# MEACHINE MAKINAREN

## PROPOSAMENA

Meachine makina bat da zeina animal haragia sortzen duen animali zelula batzuetatik. Makina hau sortzea lortu dugu zenbait zientifiko, ikertzaile, biologo eta espezialisten laguntzarekin, laborategietan hainbat ikerketa eta esperimentu egin ondoren. Beraz, nutrizionistekin eta medikuekin kolaboratuko dugu ere bai.

Makina zoragarri honekin ingurumena hobetzeko gaitasuna dugu, animaliak gaizki tratatzen dituzten makroabeltegiak eta makrobaserriak ez liratelako gehiago existituko, izan ere, ez lirateke hainbeste animali hil behar haragiaren munduko eskari izugarri handia asetzeko. Hari esker, animalien maltratua desagertuko litzateke behin betikoz, eta ondorioz, kalitatezko haragia jango genuke, eta ez txarto pasatu duten animaliena, zeina askotan gaixotasunak eta kalteak dakartzan gure gorputzarako. Bestalde, ez litzateke behar inolako garraiorik animali haragia baserrietatik fabriketara eta handik haragitegitara garraiatzeko, eta ondorioz, kutsadura asko murriztuko litzateke.

Baina makina onen beste helburu bat ere begetarianoak guztiz osasuntsuak egotea da. Izan ere, lortuko genuke begetarianoek animali haragia jan ahal izatea, haragi hau sortzeko ez direlako animaliak hil behar, baizik eta haren zelula batzuk erabili beraiek duten haragia sortzeko. Horren ondorioz, begetarianoak animaliek dituzten proteinak lortzeko gai izango dira inolako medikamenturik jan behar gabe eta ez dira inoiz desnutrituta egongo.

Gure produktua pentsatuta dago etxe bakoitzean “meachine” bat egoteko .Horrela jendeak azkarrago lortuko luke janaria, ez liratelako etxetik atera behar. Haren funtzionamendua oso erraza da, pantaila bat baitarama egin beharreko pausuak azaltzen dizkizuna, baina hala eta guztiz ere, gure weborrian bideo-tutorial batzuk daude, arazoak dituztenentzat teknologiarekin. Bestalde, teknologia gustuko ez dutenentzat gure haragia ere haragitegietan lortu ahal izango dute, haiei ere salduko diegu gure produktua eta.